

UZTAILAK 12 JULIO 2020

BUSTI ZAITEZ

MÓJATE

POR LA ESCLEROSIS MÚLTIPLE

#Mójate2020



'MÓJATE-BUSTI ZAITEZ' KANPAINA

'Mójate-BustiZaitetz' lehen kanpaina duela 23 urte egin zen Gorostizako Igerilekuetan (Barakaldo), Euskadiko gizartea gonbidatzeko igerilekuetan edo hondartzetan 'bustitzera', Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen laguntzeko sinbolo gisa eta Euskadiko Elkarten errehabilitazio-zentroak mantentzeko dirua biltzeko.

Ordutik, Euskadiko 80 udalerritik gora, milaka parte-hartzaile eta euskal gizarteko hainbat eta hainbat aurpegi ezagun –agintariak eta gizarte-, kultura- eta enpresa- arloko ordezkariak, besteak beste- Esklerosi Anizkoitzaren alde busti dira, eta sendotu egin dute 'Mójate-BustiZaitetz' 'Udako Ekintza Solidario' gisa.

Busti Zaitetz-en bidez, gizartearekin eskutik jarraitu nahi dugu gaixotasun hau ezagutarazteko eta sentsibilizatzeko, **Euskadin 2.600 pertsonari eragiten dien gaixotasuna –emakumeei nagusiki- eta 56.000ri Estatu osoan**. Funtsak lortu nahi ditugu EA duten pertsonen Euskadiko hiru Errehabilitazio-zentroetan eskaintzen dizkiegun errehabilitazio-zerbitzuak finantzatzeko.

Datorren **uztailaren 12an, igandea**, Euskadiko Esklerosi Anizkoitzak **Mójate-Busti Zaitetz egingo du**. Euskal udalerriri ugari eta milaka pertsona berriz ere bustiko dira 'Udako Topaketa Solidarioan'. Aurten, Busti Zaitetz modu desberdin batean egingo dugu. COVIDen pandemiaren ondorioz, inoiz baino kanpaina birtualagoa izango da, sinbolismoz betetako ekintzekin, baina protagonistak, beti bezala, Euskadiko Esklerosi Anizkoitza duten pertsonak izango dira.

Arrazoi asko daude bustitzeko:

- Oraindik ez dakigulako esklerosi anizkoitzaren kausa, Euskadin 2.800 pertsonari eragiten diena eta Estatu osoan 55.000ri.
- Bigarren desgaitasun-kausa delako pertsona nagusi gazteengan, trafiko-istripuen ondoren.
- Elkarteari behar dituen baliabide ekonomikoak eta materialak emateko, gaixotasun hau duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eskaintzen dizkien errehabilitazio-zerbitzuak finantzatzeko.

UZTAILAK 12 JULIO 2020

BUSTI ZAITEZ

MÓJATE

POR LA ESCLEROSIS MÚLTIPLE

#Mójate2020



NOLA HARTU PARTE KANPAINAN

Esklerosi Anizkoitzari lagundu eta 'Mójate-BustiZaitetz' kanpainan parte hartu nahi duten pertsonak modu askotara egin dezakete:

Eskuratu Busti Zaitetz-eko produktu solidario bat

Kontsultatu katalogoa. Artikulu solidarioak familia osoarentzat eta udan erabiltzeko, Katuky Saguyaky-ko Mikel Urmenetaren diseinuekin; Mikel Urmenetak modu solidarioan kolaboratzen du, publizitate-irudia eta merchandising-material guztia diseinatuz. Material hau hemen eskura daiteke:

[:https://www.esclerosismultipleuskadi.org/productos-solidarios/](https://www.esclerosismultipleuskadi.org/productos-solidarios/)

“Mójate – Busti Zaitetz” kanpainaren merchandising-material guztiak bultzada handia ematen dio kanpainari, bai irudiarengatik eta bai ekartzen dituen diru-sarrerengatik.

Egizu dohaintza bat eta partekatu irudia Instagram-en

Lagundu guri Esklerosi Anizkoitzaren eragina gelditzen eta sare sozialen bidez ezagutarazten. Egizu ekarpen bat hemen: <https://www.esclerosismultipleuskadi.org/>

Igo argazki bat sare sozialetara, Instagram @emeuskadi helbidean horretarako prestatutako iragazki dibertigarriarekin.

Hartu parte BustiZaitetz jardueretan.

Jakin non busti zaitetzkeen uztailaren 12an eta hartu parte: Muskiz, Zierbena, , Sopela, Plentzia, Gorliz, Bakio(leku gehiagoren Atzikipenaren zain); uztailaren 12an merchandising saltzen eta informatzen arituko gara.

UZTAILAK 12 JULIO 2020

BUSTI ZAITEZ

MÓJATE

POR LA ESCLEROSIS MÚLTIPLE

#Mójate2020



'MÓJATE-BUSTI ZAITEZ' SARE SOZIALETAN

'Mójate - BustiZaitetz' kanpaina denbora errealean jarrai dezakezu Euskadiko Esklerosi Anizkoitzaren Sare Soziales bidez (Facebook/Twitter/Instagram), **#mójate2020** traola erabiliz. Oso garrantzitsua da kanpaina, argazkiak, produktu solidarioak partekatzea ahalik eta pertsona gehienekin, horrela laguntza gehiago lortuko baititugu. Bilatu sare sozialetako ikonoak eta partekatu #Mójate2020 #BustiZaitetz2020 traolaz.

Uztailaren 12an, ordubeteko ONLINE EKITALDIA egingo dugu ZUZENEAN. Bertatik pasako dira Esklerosi Anizkoitzarekin zerikusia duten eta egun horretan bustiko diren kirol, kultura eta zientzia arloko hainbat pertsona. Elkarrizketak egingo dira eta Busti Zaitetz zuzenean egiten ari den leku desberdinekin "konektatuko gara" jardunaldia nola doan ikusteko.

Horretarako, emankizun-set bat muntatuko dugu, aurkezle elebidun batekin, eta gonbidatuei sarrera ematen joango da.

- Hauek dira Sare Sozialetako gure kontuak:

FACEBOOK: EsclerosisMultipleEuskadi

TWITTER: @emeuskadi

INSTAGRAM: EMEuskadi

TRAOLA: #mójate2020

UZTAILAK 12 JULIO 2020

BUSTI ZAITEZ

MÓJATE

POR LA ESCLEROSIS MÚLTIPLE

#Mójate2020



ESKLEROSI ANIZKOITZARI BURUZ. DATU OROKORRAK

- Esklerosi Anizkoitza gaixotasun neurologikorik ohikoena da pertsona nagusi gazteen artean, normalean 20 eta 40 urte artean diagnostikatzen da.
- Gehiago eragiten die emakumeei gizonei baino.
- Gaixotasun kronikoa da, bizi-kalitatea mugatu dezaketen ondorioak ekar ditzake eta, ondorioz, eragin sozial handia du.
- Gaur egun, 2.600 pertsonak baino gehiagok pairatzen dute Esklerosi Anizkoitza Euskadin (1.800 Bizkaian). 56.000 pertsonak baino gehiagok Estatuan eta Europan kopurua 700.000ra igotzen da.
- 5 orduan behin kasu berri bat diagnostikatzen da estatuan.

Gaixotasun honen **SINTOMARIK ohikoenak hauek dira:**

- Zentzumen-, oreka- eta mintzamen-arazoak.
- Dardarak, gorputz-adarren ahultasuna eta, kasu larriagoetan, paralisia.
- Espastizitatea, asaldura urologikoak, bertigoa, nekea, inurridurak eta ikusmen-asaldurak.

EZ da gaixotasun kutsakorra

EZ da hereditarioa

EZ da hilgarria

UZTAILAK 12 JULIO 2020

BUSTI ZAITEZ

MÓJATE

POR LA ESCLEROSIS MÚLTIPLE

#Mójate2020



EUSKADIKO ESKLEROSI ANIZKOITZA FUNDAZIOA

Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitza Fundazioa ongintza- eta laguntza-erakundea da, irabazi asmorik gabekoa, eta bere helburua da Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea EAren esparruan.

Aurten, ADEMBIk (Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte) 35 urte bete ditu. Garai hartan, gaixotasuna hurbil bizi izan zuen pertsona-talde bat elkartu zen guztiz ezezaguna zen gaixotasunaren inguruan eztabaidatzeko, ikasteko eta borroka egiteko. Ez dago beste gaixotasun neurologikorik ezagutza eta tratamendua hainbeste aurreratu duenik, gaur egun diagnostikatutako pertsonak askoz ere etorkizun oparoagoa dute aurrean.

Esklerosi Anizkoitzak kausa ezagunik izan gabe eta sendabiderik gabe jarraitzen du. Bere diagnostikoaren inpaktua eta bere bilakaerak sortzen duen ziurgabetasuna direla-eta, aurrerapenekiko itxaropena garrantzitsua eta oso desiratua da egunero EAren bizi garenontzat.

Bitartean, egunerokotasuna da gakoa, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta aurrera egiten jarraitzeko.

Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak, ADEMBI, EA Fundazioa 2001ean sortu zuen, gaixotasun honen aurkako borrokan jarraitzeko eta Esklerosi Anizkoitzaren Elkartean lana babesteko hiru lurraldeetan, pairatzen duten pertsonak artatzeko behar diren baliabideak eskainiz.

Gaur egun, 2.600 pertsonako kolektiboa ordezkutzen du, eta Estatuko bigarren erakunderik garrantzitsuena da.

Fundazioa **ISO 9001:2000 ziurtagiria** lortu duen EAren lehen erakundea da Espainian. Ziurtagiri honek bere lanaren kalitatea aitortzen du gizartearen sentsibilizazioan, komunikazioan eta ekitaldi zientifiko eta sozialak antolatzen eta egiten.

UZTAILAK 12 JULIO 2020

BUSTI ZAITEZ MÓJATE

POR LA ESCLEROSIS MÚLTIPLE

#Mójate2020



HELBURUAK ETA JARDUKETA-ILDOAK:

- Gizartea sentsibilizatu eta informatu gaixotasun sendaezin honek berekin dituen arazoez, nagusiki, pertsona gazteei eragiten dien gaixotasuna.
- Hiru Elkarteei behar dituzten baliabide ekonomikoak eta materialak eman, gaixoei bizi-kalitatea hobetzeko eskaintzen dizkieten errehabilitazio-zerbitzuak finantzatzeko.
- Ikerketa eta osasun-profesionalekiko harremana sustatu.

Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte (ADEMBI)

Ibarrekolanda 17, atzealdea

48015- Bilbo

www.adembi.org

INFORMAZIO GEHIAGO:

Karme Zubizarreta

kzubizarreta@emeuskadi.org

(649613121)